

2024ko laugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 1,7 egin dute gora aurreko hiruhilekoaren aldean Euskal AEn

Inportazioen prezioak % 2,0 jaitsi dira

2024ko laugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 1,7 egin dute gora, aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustaten datuen arabera. Alderatzea 2023ko hiruhileko berarekin egiten badugu, prezioak % 2,3 igo dira.

Inportazioek, berriz, kontrako eredua jarraitzen dute; izan ere, prezioak % 2,0 jaitsi dira 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta % 0,5 urte batetik bestera.

Esportazio “energetikoen” prezioek % 1,4 egin dute gora, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta “ez-energetikoenek” % 1,8. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun “energetikoen” prezioak % 7,1 igo dira, eta “ez-energetikoenak” % 2,1.

Inportazioen kasuan, produktu “energetikoen” prezioen indizeak atzera egin du, bai urte arteko tasan $-9,0$, bai aurreko hiruhilekoaren aldean $-9,3$. Ondasun “ez-energetikoak”, aldiz, % 3,3 hazi dira urte arteko tasan eta % 1,7 aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2024/IV

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,7	2,3	-2,0	-0,5
Energiazko gaiak	1,4	7,1	-9,3	-9,0
Energiazkoak ez diren gaiak	1,8	2,1	1,7	3,3
Kontsumo-ondasunak	1,4	1,4	0,8	8,6
Kapital-ondasunak	3,2	4,7	3,8	2,0
Bitarteko ondasunak	1,2	1,6	-2,8	-1,7

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhileko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2025eko Marboaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Helburu ekonomikoaren araberako sailkapenari jarraituz, eta 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, Kapital-ondasunen (% 3,2), Kontsumo-ondasunen (% 1,4) eta Bitarteko ondasunen (% 1,2) hazkundera nabarmentzen da. Aurreko urtearen aldean joerak mantendu egin dira eta Kapital-ondasunak % 4,7 igo dira, Bitarteko ondasunak % 1,6 eta Kontsumo-ondasunak % 1,4.

Azterketa inportazioetara bideratuz, Kontsumo-ondasunen eta Kapital-ondasunen hazkundera ikusten da, bai urte arteko alderaketan, bai hiruhileko artekoan; handiagoa da Kontsumo-ondasunena (% 8,6) lehenengo kasuan, eta Kapital-ondasunena (% 3,8) bigarrenean; Bitarteko ondasunek, berriz, bietan egin dute atzera ($-1,7$ eta $-2,8$).

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, prezioek goranzko joera erakutsi dute 2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, nahiz eta urtetik urterako alderaketan baino txikiagoa izan. Eurogunean, igoera % 2,4koa da, EBn % 2,5ekoa eta ELGAN % 2,2koa; munduko gainerako lekuetan, berriz, prezioek % 0,9 egin dute behera.

Aurreko urtearekin alderatuta, Eurogunean % 4,4 igo dira, EBn % 3,3, ELGAN % 1,6 eta Munduko gainerako lekuetan % 6,8.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2024/IV

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,7	2,3	-2,0	-0,5
Euro eremua	2,4	4,4	-3,1	1,2
EB-28	2,5	3,3	-2,7	0,1
ELGE	2,2	1,6	-1,9	-0,7
Munduko besteak	-0,9	6,8	-2,5	-1,1

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2025eko Martxoaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, arlo ekonomiko guztietan atzerakadak izan dira aurreko hiruhilekoaren aldean; horien artean, Eurogunea nabarmendu da (–% 3,1). Urte arteko alderaketan, Euroguneko prezioek ere gora egin dute, kasu honetan % 1,2. Munduko gainerako lekuetan aurkakoa gertatu da, % 1,1 jaitsi baita; beste bi eremuak, berriz, egonkor daudela dirudi.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62